



abaildu 'lur jota, desanimatuta'	«...baina orain gure animoak ez zuen aurrekoaren antzik: pott eginda sentitzen ginen, abaildurik , garaituta.»	(63)
abiada biziko 'azkar batean emandako'	«Itxura batean ez zegoen aldaketarik, ez onerako ez txarrerako: betiko moduan eman zigun klasea, abiada biziko apunteekin.»	(40)
ahapeka 'ahots baxuan'	«Gelaurreko aulki banatan geratu ginen zain, kontatu beharrekoak nork esango zituen elkarrekin eztabaidan, ahapeka baina.»	(36)
alde 'diferentzia'	«Bataren eta bestearen alde geundenok besoa altxatu eta Larraitzen proposamenak irabazi zuen, alde handiz.»	(34)
alproja 'arlotea'	«...nola ibiliko zen ba nirekin, eskolan beti erdipurdi ibili eta alproja fama duen mutilarekin, zein eta bera, 'perfekzio' guztien adibide bizia.»	(73)
alu 'azeria, maltzurra'	«Ez zait sekula ahaztuko irakasle alu hura.»	(7)
amore eman 'errenditu, etsi'	«Tipo koipetsuaren sareetan gero eta harrapatuago zegoen Patxi, handik irten ezinik, eta azkenean amore eman zuen.»	(109)
ankerkeria 'jokaera kupidagabea'	«...Txintxetaren ankerkeria norainokoa zen ikusita.»	(142)
anpolai 'gerezi gorri handia'	«Ni ere anpolaien kolorekoa jartzen ari nintzela uste dut, eta ez nekien zer esan.»	(75)
arriztu 'txistu egin'	«Harrigarriena, Larraitzek jo zuela arriztua! Ustekabez beterik zegoen neska hau, baina ez zeukan horretaz pentsatzeko astirik.»	(88)
artegatasun 'urduritasuna'	«Hantxe geunden ba, lehenengo egunean, (...) institutu aurreko patioan zain, denak urduri, artegatasun hori ezkutatzeko hitz eta pitz berriketan...»	(9)
atarramendu 'istilua'	«Institutan halako atarramendua ateratzekotan, nahiago omen zuten berehala joan...»	(185)
atezuan egon 'erne egon, tentsioan'	«Baina haserrearen azpian, nik uste, beldurra zegoen ezkutuan, atezuan : denen begipean eta jo-puntuaren egotearen beldurra...»	(69)
atundu 'apaindu'	«...esan zuen Patxi Zurik, burusoilaren estalketa berriz ere atonduez... »	(114)
aukeran 'agian, beharbada'	«Begiak urdinak eta hizkera gozoa, gozoegia aukeran. »	(37)
aurki 'laster'	«...inbidiaz batetik eta desfioz bestetik, ikusiko duzue, pentsatuko bagenu bezala, aurki gu izango gara institutuko nagusi.»	(9)
azaldu 'jakinarazi'	«...Txintxetagan hurbildu ziren, hileta batean bezala beren atsekabea azaltzera. »	(170)
azkazal 'atzazala'	«Halaxe jokatzan zuten haiek: odolik ez bazegoen, nahi zuena egin bezala irakasle bakoitzak, baita azkazalak kentzen bazizkigun ere.»	(27)
balizko 'suposatzen dena'	«Azken batean –esan zuen Patxi–, egin omen dituen balizko bidegabekeriak gaitzaren ondorio izango ziren seguru asko.»	(181)
barkaberatasun 'barkatzeko erraztasuna'	«...ez duela aurkituko gaur bezalako barkaberatasun eta eskuzabaltasunik...»	(127)
bekosko 'betosko, bekokia zimurtuta'	«Kasu honetan katua baino areago otsoa zen Txintxeta, bere begi beltz haiekin bekosko ilunez begira, arkumea jateko prest.»	(22)
berbaro 'hitzots isila'	«Lehenengo momentuan isildu egin ginen, izututa. Handik pixka batera, ordea, mehatxua ahaztuta, hizketa-zurrumurrua, berbaroa hasi zen.»	(21)
betertz 'begiaren ertza'	«Isilik geunden denok, aldika Txintxetari aldika elkarri begira, betertzez beti, normaltasun itxurak egiten.»	(59)
bezpera 'aurreko eguna'	«Txintxetarekin, ordea, noiz zen bezpera hori?»	(29)



biharamun 'hurrengo eguna'	«Azkenean, biharamunerako ez uzteagatik eta gogoz kontra bazen ere, onartu zuen ordu bat hutsegitea, zuzendariarengana joateko.»	(34)
bihurri 'ohizkoa ez dena'	«...izan ere, galderak jartzen bihurria zen Txintxeta, eta zuzentzen, berriz oso zorrotza.»	(45)
bisaje 'bisaia, aurpegiaren itxura'	«Eta nik bezala beste askok, jendeak ageri zuen bisaje galduari kasu eginez gero.»	(41)
blaitu 'urez hondatu'	«Txintxetaren blaitzea eta gure barre algara eraginez.»	(148)
bolo-bolo 'funtsgabea'	«—...Eta zuen ahotik jakin nahi nuke batere funtsik eta egia-arrastorik baduten, ala bolo-bolo dabilzan txutxu-mutxu hutsak ote diren.»	(70)
bortitz 'gogorra'	«Pandaren proposamen bortitza alde batera utzita, bi ziren joera nagusiak...»	(77)
bulkada 'bultzada'	«Nik ere ez dakit zergatik egin nuen, momentuko bulkada bat izan zen, bere jarrera ausartak eragindakoa.»	(75)
burusoil 'buruan ilerik ez duena'	«...esan zuen beste guraso batek, gizon burusoil betaurrekodun batek...»	(111)
dagoeneko 'ja, jadanik'	«— Dagoeneko ez zarete umeak dena eginda emateko.»	(19)
deituko gaitiztek 'deituko gaituzte, hiketan'	«...eta gaur bertan bilera baterako deituko gaitiztek ...»	(99)
di-da 'alde batetik bestera'	« Di-da ibili ginen beste pixka batean, musetik pilota partidu batera pasatu bagina bezala, baina ezer ateratzen ez zuela ikusita bidali egin gintuen gelara...»	(72)
duintasun 'begirunea, errespetua'	«—Ba, beldur pixka bat ematen badit ere, nik uste, duintasunez , bigarren aukera hartuko nukeela.»	(74)
durduzamendu 'nahasmendu'	«—Zer da hau? —esan zuen Txintxetak, durduzamenduaren eta ernegazioaren artean, eskua ipurdi alderantz zeramala.»	(152)
durundio 'durundia, oihartzuna'	«Haren hots ozenak durundio egiten zuen gelan, isil-isilik gelditu baikin denok.»	(50)
egundoko 'izugarrikoa, itzelezkoa'	«Gutxi behar zuen hark egundoko sermoia botatzeko.»	(14)
elbarritu 'ezindu, mugitu ezin'	«Une hartan denok geratu ginen elbarriturik bezala, urduri, zain.»	(62)
enbat 'eraso'	«—Ez dut horrelako matxinadarik onartuko —hasi zen gogor enbatean —.»	(54)
erdipurdi 'hala-hola, kili-kolo'	«...nola ibiliko zen ba nirekin, eskolan beti erdipurdi ibili eta alproja fama duen mutilarekin, zein eta bera, 'perfekzio' guztien adibide bizia.»	(73)
ernegatu 'gaitzesan, madarikatu'	«Ez dakit zer ernegatu zuen gehiago Txintxeta: Pandaren erantzunak ala barreak.»	(31)
ernegazio 'amorrua, haserre bizia'	«—Zer da hau? —esan zuen Txintxetak, durduzamenduaren eta ernegazioaren artean, eskua ipurdi alderantz zeramala.»	(152)
erretolika 'agirika, sermoia, zaparrada'	«Nahiko erreta zetorren hori gabe ere, eta han hasi zitzaigun sekulako erretolika botatzen...»	(13)
erronka 'desafioa, mehatxua'	«—Beste inork hitz egin nahi al du orain? —bota zuen berriro Txintxetak, erronkan , eta bere ikasgaiarekin segitu zuen...»	(21)
esnai 'esnaturik, lo egon gabe'	«Ametsek ordea, batez ere esnai egiten direnek, ez dute ezer irauten, errealitate gordina aurrez aurre jartzen zaienean...»	(133)
ezegiteko 'behar ez dena, astakeria'	«...halako egoera batean normala da, amorrazioak hartuta, edozein ezegiteko egitea.»	(180)



gaingiroki 'sakondu gabe'	«Aurreneko lerroetakoek utzi zizkioten bereak. Koldo pixka batean aritu zen, gaingiroki aztertzen.» (129)
gandor 'oilarren buruko haragi gorria'	«Oilategi hark bazuen ordea bere oilarra, gandorraren ordez burusoila estaltzen zioten ile bakanak harroturik eduki arren...» (114)
ganora 'fundamentua'	«...semaren ganora eskasa eta eskolako emaitza txarrak zirela eta.» (186)
gorriak ikusi 'une larriak pasatu'	«Azterketan beste horrenbeste gertatzen bazitzaidan, gorriak ikusi beharko nituen.» (132)
goxatu 'bigundu'	«Zuei denoi laguntzeko nago hemen ni, eta gaur bertan hitz egingo diot Joxeani, bere zer horiek... zakarkeriak pixka bat goxatzeko .» (39)
handi-mandi 'handiputza'	«Pandak ez zien beldurrik izango handi-mandi haiei...» (103)
hiltegi 'animaliak hiltzen diren tokia'	«Ez zitzaidan burutik kentzen ardien irudia: institututik gertu abereen hiltegia zegoen...» (12)
hitz total 'errepikatuz mintzatzen dena'	« Hitz-totelari lagundu ezinik, klarionari eusten zion eskua gora eta behera mugitzen zuen, eta bere begi beltzak ere...» (49)
hitz-parrastada 'sermoia'	«Hondarreko gazteluak lehen olatu indartsuarekin bezala desegin ziren gure itxaropen-apurrak Patxiren hitz-parrastadarekin .» (54)
irain 'laidoa, mesprezuzko hitza'	«...batzuek zerbait gogorra proposatzen zuten, eta beste batzuek ez zuten irainera iritsi nahi...» (86)
irrika 'gogo bizia'	«Txintxeta sartu orduko beldurrez dardarka hasten ginen, ez ote zigun kontrola jarriko, baina aldi berean irrikaz geunden zain...» (47)
izutu 'ikaratu'	«Lehenengo momentuan isildu egin ginen, izututa . Handik pixka batera, ordea, mehatxua ahaztuta, hizketa- zurrumurrua, berbaroa hasi zen.» (21)
jaramon 'kasua'	«...hura ez zen jaramonik egin gabe pasatzen uzteko sermoia: agindua zen...» (14)
jeloskor 'zelati, zeloak dituen'	«Eta Larraitz jeloskor ote zegoen horrenbeste haserretzeko?» (132)
jo ta ma 'aho bete hartz, hitz barik'	«Zuri geratu nintzen. Jo ta ma .» (131)
jostalari 'jolaserako gogoia duena'	«Doinu jostalariz bota zuen, txiste bat kontatzen ari balitz bezala.» (59)
kalamatrika 'hizkera nahasia, haririk gabea'	«Iribarrez entzun zituen Koldok gure kalamatrikak ...» (98)
kaskagor 'burugogorra'	«Panda kaskagor jartzen zenean ez zegoen bera baino egoskorragorik.» (64)
kate 'gutxi, suspentsoa'	«—Eta denoi kate jartzen badigu?» (46)
kilika 'kili-kiliak'	«Ezinegon bat sumatzen zen gure begiradetan, kilikak sabeletan.» (12)
kokildu 'kikildu, atzera egin, beldurtu'	«Txintxeta ez zen kokildu , ez errukitu: biharamunean etorri zen, azterketak zuzenduta, eta hauek banatzen hasi zen.» (32)
kopeta 'bekokia'	«Eta nola bagenekien Txintxeta ez zela gurekin errukituko, hobe lehenbailehen alde egitea, haren kopeta zimurrari begira egotea baino.» (41)
kukurruku 'oilarrak egiten duen hotsa'	«...gandorraren ordez burusoila estaltzen zioten ile bakanak harroturik eduki arren, eta kukurrukua jo zuen zuzen dariak...» (114)
larrutu 'larrua kendu, kritikatu'	«Eta horrela larrutzen genituen denak: matematika ematen zuen Yoli despistatu hutsa zen, ikasleen izenak ere nahasten zituena...» (10)



marimutil 'mutil itxura duen neska'	«Ilea motx-motxa zeraman eta beti ibiltzen zen bakeroekin, baina hala ere ez zuen marimutil itxurarik batere.»	(107)
marmar 'murmurioa'	«Batzuek protesta, besteek marmar ...»	(12)
marruka 'arrantzaka'	«Eta horrela denak, builaka eta marruka .»	(50)
maspildu 'mailatu, markatu'	«Bost mila masaila izanda ere, bost milak maspilduko zizkigun zerri horrek gustura.»	(144)
matxarda 'kritikaria'	«Aurkezne eta Maitane ziren. Matxarda samarrak eta berritsuak, baina ez istiluak sortzen dituztenetakoak.»	(21)
matxinada 'errebolta'	«—Ez dut horrelako matxinadarik onartuko —hasi zen gogor enbatean—.»	(54)
mikaztu 'mingartu, ozpindu'	«Irribarre egiten saiatu zen Txintxeta, baina lehengo distiratsua ordez aurpegi mikaztua adierazten zuen bere aho okertuak.»	(87)
motell 'mutil, lagun arteko hizkeran'	«—Hago lasai motell —erantzun genion—, Txintxeta alu hori txikitu egingo diagu eta.»	(69)
mukizu 'mokoti'a'	«Gainera , nork eta hamalau urteko mukizu batzuek.»	(111)
musugorri 'aurpegi gorrikoa'	«...txakurra bezala baitzegoen han Karmele: laurogei kiloko neskamotz musugorria , idazmakinan aritzeko baino aizkorarako hobe ematen zuena.»	(36)
neskamotz 'neska baxua eta indartsua'	«...etxe aurreko txakurra bezala baitzegoen han Karmele: laurogei kiloko neska- motz musugorria, idazmakinan aritzeko baino aizkorarako hobe»	(36)
ñañarro 'neurri txikikoa, ñarroa'	«...halako batean atea zabaldu eta tipo ñañarro buruhandi hura ikusi genuenean gure gelara sartzen.»	(134)
orban 'zikiunea'	«Errekuperazioak ere ez du konpontzen espediente agertuko den orbana ...»	(117)
orobiltzaile 'barruan dena hartzen duena'	«Arazoa osotasunean aztertzea izango dugu onena, eta konponbide orobiltzailea ematea.»	(116)
orohar 'orokorrean'	«Baina, orohar , nahiko jende jatorra ziruditen denek ere.»	(15)
otxandu 'mantsotuta'	«...ea inor ausartzen ote zitzaion aurre egiten, eta denok otxanduta ginduzkanez, Garbiñeri heldu zion berriro...»	(62)
ozen 'ahots indartsuz'	«—Ez al duzu ikasi?— ozen oso.»	(23)
ozta-ozta 'juxtu-juxtu'	«...eta gu arnasa hartu ezinik ia, esaldien erdia ozta-ozta harrapatuz.»	(20)
pagotxa 'mahuka, zailtasun eza'	«—Aprobetxatu ba, ahal duzuen bitartean, berehala bukatuko baitzaizue pagotxa .»	(135)
panpoxa 'ederra. pertxenta'	«Nik ere paseatuko nituzke neska panpoxak , Opel Calibra bat banu.»	(154)
pare 'bezala'	«Txintxetaren estiloa bestelakoa zen: metraileta baten pare ari zen hizketan, bizi-bizi, gelditu ere egin gabe...»	(20)
pausaje 'erritmoa'	«Beti bezala pausaje lasai eta kopeta gora altxaturik atera beharean, gu denoi hizketan aritu zitzaigun aterako bidean...»	(61)
pelegrinazio 'ibilaldia'	«Patxi Zuri nazka-nazka eginda zegoen eguneroko pelegrinazio harekin, egunik egun gure gelako bizpahiru lagun agertzen baitzitzaizkion...»	(149)
piper egin 'sasieskola egin'	«Bere abantailak ere bazituen horrek bestalde, piper egitean ez bezala, ez baitzen gero hutsegitearen abisurik etortzen etxera.»	(82)



pipermín 'mina ematen duen pipertxoa'	«Gorkak esan ohi zuenez, 'horrek pipermína sartzen dik goizero ipurtzulotik, bestela ezin litekek'.»	(14)
pott eginda 'porru eginda, sats eginda'	«...baina orain gure animoak ez zuen aurrekoaren antzik: pott eginda sentitzen ginen, abaildurik, garaituta.»	(63)
propio 'beren beregi, berariaz'	«Pandak eta Txusmak, adibidez, behin baino gehiagotan ekin zioten propio eskandaluari...»	(82)
pultsu 'indarra neurtzeko jokia'	«...Txusmi eta Panda pultsuan ari ziren, zeinek zein menperatuko...»	(157)
samar 'pixka bat, arean'	«Nahas-mahas samar ibili ginen baina dena oso-osorik azaldu genion.»	(37)
sikulusaltsa 'istilua, kalapita'	«...eta ikasle guztiek baietz, eta irakasle gehienek ezetz, eta gurasoek ere baietz, eta berriz ere sikulusaltsa galanta antolatu zen han.»	(115)
solasgai 'hitz egiteko gaia'	«Eskerrak Gorkak bide zuzenera ekarri zuen solasgaia ...»	(58)
sumindua 'haserre'	«Ni tartean. Txintxeta gero eta suminduago zegoen.»	(24)
tema 'seta'	«...baina, irregular samarra da nolanahi ere –Patxi zuri bere temarekin .»	(109)
trinkili-trankala 'zabuka, alde batetik bestera'	«Iker ahal zuen moduan hasi zen, trinkili-trankala eta estropozoka.»	(60)
tripazaku 'jatuna, tripontzia'	«—Eta ni —erantsi tripazaku batek— ezin jaitsi ondoko kioskora kruasan xixtrin bat erosteko ere.»	(76)
txaplaka egin 'bizkarrean kolpetxoak eman'	«Nolabait lagundu nahian, besarkatu egin nuen, eskuarekin bizkarrean txaplaka eginez ...»	(96)
txatxu 'moxoloa, ergela'	«Gelara iritsi ginen eta akabo nire gogoeta txatxuak . Aulkiak eta, banatu behar.»	(12)
txima 'zapa, ile multzo txarto orraztua'	«...esan zigun, begi beltz haiek bere zuloetatik atera beharrean eta tximak harroturik, ero itxura beldurgarritz.»	(88)
txingurri 'inurria'	«Poto bete gozo sartuko nieke nik bieie ipurtzulotik, eta gero txingurritara bota.»	(39)
txintzarri 'zintzarria, kanpaitxo biribila'	«Saguen aspaldiko ipuin hartan bezala zen hura: nork ipini txintzarria katuari.»	(22)
txintxo 'zintzoa, esan onekoa'	«Denok aritu ginen oihi eta zalapartaka, baita normalki ahorriz zabaltzen ez duten txintxoak ere.»	(50)
txiripa 'kasualitatea'	«Dena dela, papera zertxobait zirriboratu genuen, nik bai behintzat, erdia baino gehiago asmatuta, txiripaz aprobatzeko esperantzarekin baino gehiago...»	(32)
txurrustan 'litroka eta litroka'	«Izertia txurrustan zetorkidan bekokitik behera...»	(135)
ukabilkazo 'ukabilkada'	«...gero, bere autoari ostikoa eta ukabilkazoak ematen segitu zuen...»	(169)
ukondo 'ukalondoa'	«Elkarri begiratu genion, gero ukondoarekin batak bestea jo, hitz egin zezan, eta hala ere ez bat ez bestea ez ginen hizketan hasten.»	(37)
urruma 'usoek egin ohi duten hotsa'	« Urruma hori entzunda, sugeak heldu balu bezala apartatu ninduen Larraitzek eta komunean sartu.»	(96)
uxatu 'urrunarazi'	«Eta inor ausartzen ez bazen laster asko saiatuko ginen beste guztiok beldur hori ukatzen, uxatzen .»	(69)
xaxaka 'zirikatu'	«—Beste greba bat egin behar dugu —beste batzuek xaxaka .»	(155)



xaxtar 'satarra, kalitate bakoa'	«Ordura arte Opel Corsa txuri bat zeukan, urte batzuk ere bazituena; ez bereziki xaxtarra ere. oharkabean pasatzen diren horietakoa.»	(84)
zakarkeria 'gozotasun falta nabaria'	«Zuei denoi laguntzeko nago hemen ni, eta gaur bertan hitz egingo diot Joxeani, bere zer horiek... zakarkeriak pixka bat goxatzeko.»	(39)
zapuztuta 'gogogabetuta, defraudatuta'	«... eta apunteak ematen normal hasten bazen zapuztuta bezala geratzen ginen.»	(47)
zer gerta ere 'badaezpadan'	«Eulirik ere ez zen mugitzen han. Denok lurrera begira, zer gerta ere .»	(17)
zipitzik 'bat ere '	«Gero eta gutxiago ziren ordea, apunte haiei kasu zipitzik egiten zietenak.»	(82)
ziria sartu 'engainatu'	«Eta denon ideiak beharko genituen, denon adostasuna, Txintxetak berriz ere ziririk ez sartzeko.»	(64)
zirika 'burlaka, probokazioka'	«...beste batzuen ustez, beti zirika , beti zizt eta zazt, ipurdian jarritako txintxeta bat bezalakoa zelako.»	(11)
zirkin 'mugimendu txiki-txikia'	«Aurrean zeuzkan biek ere ez zuten zirkinik egin.»	(158)
zoru 'behearen gainaldea'	«Beldurra ematen zigun haren begirada gorriak, eta zoruan josten genituen gure begiak harenekin topo ez egitearren.»	(49)
zotinka 'txokin' (hipo)	«...jendea bere aulkietan mugitzen hasi zen, hasi ginen, ipurdia garanoa duzunean bezala, batzuk eztulka, besteren bat bat-batean zotinka , denak ere	(60)
zuhur 'adi, erne, bizkor'	«—Aspaldi ez digu azterketarik jarri —esan zuen Larraitzek zuhur (paso).»	(71)
zuritu 'azala kendu'	«Zuzendaritzako atea zabaldu eta hantxe topatu genuen Karmele laranja bat zuritzen , hamaiketako egiteko asmoz edo.»	(53)